

 **GIDA:**

JARDUERA EKONOMIKOEI ADMINISTRAZIOEN AURREAN ALTA ETA BAJA EMATEKO IZAPIDEAK



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Alava

www.alava.net



GIDA: JARDUERA EKONOMIKOEI ADMINISTRAZIOEN AURREAN ALTA ETA BAJA EMATEKO IZAPIDEAK

Sarrera

Jarduera ekonomikoa egiten dugu ekoizpen baliabideak, giza baliabideak edo batzuk zein besteak geure kabuz antolatzen ditugunean ondasun edo zerbitzu baten ekoizpenean edo banaketan.

Bereziki, halakotzat jotzen dira erauzpeneko jarduerak, fabrikaziokoak, merkataritzakoak eta zerbitzugintzak (artisautza barne), nekazaritzakoak, basogintzakoak, abeltzaintzakoak, arrantzakoak, eraikintzakoak eta meatzaritzakoak, eta lanbide liberalak eta artistikoak ere bai.

Enpresa edo lan jarduera ekonomiko bati ekiteko hainbat izapide egin behar dira erakunde publiko batzuetan (Arabako Foru Ogasuna, udalak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra), eta halako jarduera bati baja emateko edo beraren egoitza aldatzeko ere bai.

Liburuxka honen bidez azalduko da nolako izapideak egin behar dituzten pertsona fisikoek (autonomoek), nortasun juridikorik gabeko erakundeek (sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek) eta pertsona juridikoek (merkataritzako erakundeek) jarduera ekonomiko bati alta edo baja emateko edo egoitza aldatzeko.



ZER IZAPIDE EGIN BEHAR DA ZERGADUNEN ERROLDAN JARDUERA EKONOMIKO BATEN ALTA, BAJA EDO ALDAKETA FORMALIZATZEKO?

PERTSONA FISIKOAK (Autonomoak)

LEHEN ATALA: ARABAKO FORU OGASUNAREKIN nahitaez egin beharreko izapideak

1. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA

Zergapekoek beren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar dute Arabako Foru Ogasunari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorpen, berriemate eta idazki guztietan.

Espainiako nazionalitatea duten pertsona fisikoen identifikazio fiskaleko zenbakia nortasun agiri nazionalaren zenbakia da, atzean egiaztapen kodea edo karakterea daukala (NAN); Espainiako nazionalitatea ez duten pertsona fisikoen, aldiz, atzeritarren identifikazio zenbakia da (AIZ). Zenbaki hau Barne Ministerioak ematen du.

2. ERROLDA AITORPENEA

- **Zer da errolda aitorpena?**

Arabako Foru Ogasunak xede honekin erabiltzen duen tresna: zuzen edukitzea enpresaburu eta profesionalen eta, ez enpresaburu ez profesional ez izan arren, ordaintzen dituzten kopuruak direla eta atxikipenak eta konturako sarrerak aplikatu behar dituzten erakundeen errolda.

- **Zer eredu aurkeztu behar da?**

Zergadunen Erroldako alta, baja edo aldaketaren berri emateko **037 eredua** aurkeztu behar da:

037 eredia alta emateko: Zergaduna pertsona fisikoa bada, beraren identifikazio datuak Zergadunen Errolda Bateratuan (ZEB) ez daudenean aurkeztu behar da, hau da, Araban zergadun berria denean. Aitorpenean IFZren, zerga egoitzaren, jakinarazpenetarako egoitzaren eta familia unitatearen inguruko datu guztiak eta identifikazio datuak eman behar dira, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta zehaztu behar da eta PFEZen, BEZaren, atxikipenen eta beste zerga batzuen araubideei eta horien inguruko zerga betebeharrei buruzko datuak adierazi behar dira.

037 eredia aldaketarako: Zergadunen Errolda Bateratuan (ZEB) erregistratuta dagoen zergaduna pertsona fisikoa bada, beraren alta aitorpeneko edo haren ondoko aldaketa aitorpen bateko daturen bat aldatu nahi denean aurkeztu behar da. Hau da, ondoko hauetan gertatzen diren aldaketen berri emateko erabiltzen da: zerga egoitza, jakinarazpenetarako egoitza, beste identifikazio datu batzuk, familia unitatea, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren altak, bajak edo aldaketak, eta PFEZen, BEZaren, atxikipenen eta beste zerga batzuen araubideak eta horien inguruko zerga betebeharrak.

037 eredia baja emateko: Zergadun bat hiltzen denean aurkeztu behar da.

- **Noiz aurkeztu behar da 037 errolda eredia?**

Helburua jarduera ekonomiko baten altaren berri ematea bada: jarduerari ekin, eragiketa ekonomikoak egin edo atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu beharra sortu baino lehen.

Helburua jarduera ekonomiko baten bajaren, egoitza aldaketaren edo zergadunaren heriotzaren berri ematea bada: baja, egoitza aldaketa edo heriotza gertatzen den egunaren biharamunetik hila-bete pasatu baino lehen.

- **Zer egin behar da 037 errolda eredia betetzeko eta Arabako Foru Ogasunari aurkezteko?**

www.alava.net webgunean edo Egoitza elektronikoa dagoen laguntza programa erabili behar da, Arabako Foru Ogasunak ez baitauka 037 errolda eredia paperean.

En concreto, las diferentes formas de cumplimentar y presentar este modelo censal son las siguientes:

- a) **Internet bidez (Egoitza elektronikoa):** Eredua linean bete (Ogasunak dauzkan errolda datuak kargatuta) eta telematikoki bidali (Izapidea: errolda ereduak).

Horretarako ziurtagiri elektronikoa behar da (hona: www.alava.net / Egoitza elektronikoa “nola erabili ziurtagiri digitalak”-“nola sartu”).

Gainera, zergadunak borondatezko ordezkari bat eman diezaiotke beste pertsona bati edo erakunde bati izapide hau beraren izenean egin dezan (2c ordezkari maila behar da) edo, bestela, erakunde laguntzailea den aholkularitza edo gestoria bat erabil dezake (borondatezko ordezkari bat eskatu behar da).

- b) **Paperean, PDF fitxategia inprimatuta:** 037 eredia www.alava.net webgunean dagoen laguntza programaren bidez bete (Ogasuna – Eredua eta inprimakiak – Errolda ereduak). Inprimatutako formularioa jendaurreko bulegoetan aurkeztu daiteke (Gasteizen, Laudion eta Guardian daude) edo ohiko postaz bidali daiteke Arabako Foru Ogasunera (Samaniego 14 - 01008 Vitoria-Gasteiz).

Eredua aurkeztu izanaren egiaztatzea lortzeko ezinbestekoa da inprimakia Ogasunaren bulegoetan aurkeztea.

- c) **Foru Ogasuneko langileek lagunduta:** Arabako Foru Ogasuneko langileek eredu hau betetzen lagundu dezakete Gasteiz, Laudio eta Guardiako bulegoetan, eta zerga betebeharren berri ere eman dezakete. Eredua bulego horietan betetzeko hitzordua eskatu behar da 945181555 telefonora deituta edo www.alava.net webgunean sartuta.

Errolda ereduaren helburua jarduera ekonomiko baten altaren berri ematea bada, ondoko datua adierazten duen OHZren ordainagiria aurkeztu behar da: zergaduna higiezinaren jabea izanez gero, katastroko erreferentzia; bestela, higiezina errentan emanda edo lagata badago, errentatzailearen edo lagatzailearen IFZ eta izena (sozietatearena zein izen-abizenak).

GARRANTZITSUA: Errolda ereduaren bidez jarduera baten altaren, jarduera baten bajaren edo egoitza aldaketaren berri ematen bada, ezinbestekoa da beraren sarrera erregistroko zenbakia jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 840 edo 841 eredu udalari aurkezteko, edo Arabako Foru Aldundiari, baldin eta jardueraren JEZen epigrafea probintziakoa edo estatukoa bada.

BIGARREN ATALA: UDALArekin nahitaez egin beharreko izapideak

JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA (JEZ)

Jarduera baten altaren berri emateko aitorpena

Pertsona fisiko batek bere kontura egiten badu enpresa jarduera, jarduera profesional edo jarduera artistiko bat, nahitaez aurkeztu behar du jarduerari JEZen **alta** emateko aitorpena, zerga horren kargapean egon zein ez.

Epealdia

Jarduera berriari edo aldatutako jarduerari **ekin aurreko 10 egunetan** aurkeztu behar da.





Jarduera baten bajaren berri emateko aitorpena

Enpresa jarduera, jarduera profesional edo jarduera artistiko bati baja eman nahi dioten pertsona fisikoek nahitaez aurkeztu behar dute jarduerari JEZen baja emateko aitorpena.

Epealdia

Hilabete jarduerari uzten zaionetik.

Jardueraren aldaketa baten berri emateko aitorpena

Enpresa jarduera, jarduera profesional edo jarduera artistiko baten zerbait aldatu nahi duten pertsona fisikoek nahitaez aurkeztu behar dute JEZen aldaketaren aitorpena.

Epealdia

Hilabete aldaketa gertatzen denetik.

Dokumentazioa

- **840 inprimakia:** enpresa jarduera baten altaren, bajaren edo aldaketaren aitorpena.
- **841 inprimakia:** jarduera profesional edo artistiko baten altaren, bajaren edo aldaketaren aitorpena.
- **842 inprimakia:** jarduerari lotutako lokal bakoitzaren altaren, bajaren edo aldaketaren aitorpena.
- Identifikazio agiriaren fotokopia (NAN, AIZ).

Arautegia

- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza
- JEZen Araua eta tarifak: ALHAO, 146. zk., 2001eko abenduaren 21ekoa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren Foru Araua.



Izapideak

Bertaratuta

San Martin auzoko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 beheka 01008 Vitoria-Gasteiz).

Linean

Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoa sartu behar da:

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/si2-04s/auth?locale=eu>

Oharrak

- Urte batean aurkezten diren aldaketek hurrengo ekitaldirako balioko dute.
- Hobariak eta salbuespenak aplikatzeko baldintzak urtarrilaren 1ean bete behar dira.
- Jardueraren izena eta egoitza aldatu nahi izanez gero, jarduerari baja emateko eta berriari alta emateko izapideak egin behar dira.

Izapide hauen inguruko informazioa jasotzeko **AHLZAren bulegora** joan daiteke (San Martin auzoko eraikineko udal bulegoak) edo 010 telefonora (Gasteiztik kanpo deituz gero: 945 161 100) eta 945 161 616 telefonora (AHLZA) deitu daiteke.

HIRUGARREN ATALA: GIZARTE SEGURANTZArekin nahitaez egin beharreko izapideak

LANGILE AUTONOMOAK:

18 URTETIK GORAKO langileek zuzenean eta modu pertsonalean egin ohi badute jarduera ekonomiko bat dirua irabazteko asmoarekin jarduera hori lan kontratu batekin lotuta egon gabe, Gizarte Segurantzaren langile autonomoen araubide berezian (LAAB) alta emateko eskatu behar dute jarduerari ekin ondoko egutegiko 30 egunak pasatu baino lehen.

Horrez gainera LAABen baja emateko eskatu behar dute jarduerari utzi ondoko egutegiko 3 egunetan.

Nola egin LAABen alta edo baja baliabide telematikoen bitartez:

LAABen alta edo baja emateko eskatu aurretik, jarduera ekonomikoko alta edo bajaren errolda aitorpena aurkeztu behar dute, eta/edo JEZen alta edo baja egin izanaren aitorpena

Internet erabiliz:

Langile autonomoak honako hauetako bat eduki behar du:

- Erabiltzaile kodea / Pasahitza.
- Ziurtagiri digitala.
- SILCON ziurtagiria.

Langile autonomoen altak eta bajak Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikoen bidez egiten dira (Gizarte Segurantzaren webgunea, www.seg-social.es). Egoitza elektronikoa, "Hiritarrak" atalaren barruan, hauetako bat hautatu behar da:

- "Autonomoen edo bere konturako langileen erregimen berezian alta eskatzea".
- "Autonomoen edo bere konturako langileen erregimen berezian baja eskatzea".

Hortxe bertan, behar izanez gero, beste hauek ere egin daitezke:

- Bizilekuaren helbidea, jardueraren egoitza eta jakinarazpenetarako egoitza aldatu.
- Gizarte Segurantzako kotizazio oinarria aldatzeko eskaera egin.
- Kuotak helbideratzeko eskaera egin.

Altaren izapideak Internet bidez egiteko datu hauek behar dira:

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) kodea eta egingo den jardueraren kodea (EJSN).
- Jardueraren hasiera eguna (bat etorri behar du Arabako Foru Ogasunean aurkeztutako errolda aitortenean ageri den egunarekin eta/edo JEZeko alta aitortenean ageri denarekin).
- LI eta LGen zer mutua hautatu den aldi baterako ezintasunak edota laneko istripuak eta laneko gaixotasunak edota lan uzteak estaltzeko.
- Zenbatekoa izango den kotizazio oinarria.
- Gizarte Segurantzaren kuotak helbideratzeko finantza erakundea eta kontua.

Bajaren izapideak Internet bidez egiteko datu hauek behar dira:

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kodea.
- Jardueraren baja egin den eguna (bat etorri behar du Arabako Foru Ogasunean aurkeztutako errolda aitortenean ageri den egunarekin eta/edo JEZeko baja aitortenean ageri denarekin).

Prozesuaren amaieran alta edo baja ebazpena sortuko da. Gorde edo inprimatu egin daiteke.

RED sistema erabiltzeko baimendutako baten bitartez:

RED sistemako baimendunak LAABen alta edo baja eman nahi dion langilearen afiliazio zenbakia eduki behar du esleitura.

LAABen altak eta bajak egiteko RED sistemako baimendunak Gizarte Segurantzaren webgunean sartu behar du: www.seg-social.es; eta han, ibilbide hau egin: RED zerbitzuak > Inskripzioa eta afiliazioa on-line > Langile autonomoen araubide berezia.

Altaren izapideak RED sistemaren bidez egiteko, RED sistemako baimendunak datu hauek eduki behar ditu:

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren (JEZ) kodea eta egingo duen jardueraren kodea (EJSN).
- Jardueraren hasiera eguna (bat etorri behar du Arabako Foru Ogasunean aurkeztutako errolda aitortenean ageri den egunarekin eta/edo JEZeko alta aitortenean ageri denarekin).
- LI eta LGen zer mutua hautatu den aldi baterako ezintasunak edota laneko istripuak eta laneko gaixotasunak edota lan uzteak estaltzeko.
- Zenbatekoa izango den kotizazio oinarria.
- Gizarte Segurantzaren kuotak helbideratzeko finantza erakundea eta kontua.

Bajaren izapideak RED sistemaren bidez egiteko datu hauek behar dira:

- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kodea.
- Jardueraren baja egin den eguna (bat etorri behar du Arabako Foru Ogasunean aurkeztutako errolda aitortenean ageri den egunarekin eta/edo JEZeko baja aitortenean ageri denarekin).

Prozesuaren amaieran alta edo baja ebazpena sortuko da. Gorde edo inprimatu egin daiteke.

BANAKAKO ENPRESABURUAK

Langileak kontratatu eta jarduera bati ekin baino lehen, enpresaburuek nahitaez eskatu behar diote Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari Gizarte Segurantzaren dagokien araubidean inskribatzeko.

Inskribatzeko eskaeran enpresaburuek adierazi behar dute LI eta LGen zer mutua hautatu duten kontratatzen dituzten langileen laneko istripuak eta laneko gaixotasunak estaltzeko eta ohiko kontingentzien ondoriozko lanerako aldi baterako ezintasunengatik ordaintzen diren prestazio ekonomikoei aurre egiteko.

Nola inskribatu enpresak baliabide telematikoen bitartez:


Enpresaburuak inskribatzeko eskaera egin aurretik, jarduera ekonomikoko altaren errolda aitortpena aurkeztu behar du, eta/edo JEZen alta egin izanaren aitortpena.

Internet erabiliz:

Banakako enpresaburuak honako hauetako bat eduki behar du:

- Erabiltzaile kodea / Pasahitza.
- Ziurtagiri digitala.
- SILCON ziurtagiria.

Banakako enpresaburuaren kotizazio kontuaren kode nagusia inskribatzeko/esleitzeko edo kotizazio kontuaren kode osagarria esleitzeko Gizarte Segurantzaren egoitza elektronikora jo behar da (Gizarte Segurantzaren webgunea, www.seg-social.es), eta han Hiritarrak edo Enpresak eta profesionalak atalean sartu. Ondoren, hauxe hautatu behar da: “Izen emate eta CCC esleipen eskaera banako enpresariarentzat”.



Altaren izapideak Internet bidez egiteko datu hauek behar dira:

- Egingo den jardueraren kodea (EJSN).
- LI eta LGen zer mutua hautatu den aldi baterako ezintasunak edota laneko istripuak eta laneko gaixotasunak estaltzeko.

Prozesuaren amaieran KKK esleitzeko ebazpena sortuko da. Gorde edo inprimatu egin daiteke.

RED sistema erabiltzeko baimendutako baten bitartez:

RED sistemako baimendunak banakako enpresaburu modura inskribatu nahi duen langilearen afiliazio zenbakia eduki behar du esleituta.

KKK esleitzeko baimendunak Gizarte Segurantzaren webgunera sartu behar du (www.seg-social.es) eta gero bide hau egin: RED zerbitzuak > Inskripzioa eta afiliazioa online > KKKren izapideak.

Altaren izapideak RED sistemaren bidez egiteko, datu hauek eduki behar dira:

- Egingo den jardueraren kodea (EJSN).
- LI eta LGen zer mutua hautatu den aldi baterako ezintasunak edota laneko istripuak eta laneko gaixotasunak estaltzeko.

Prozesuaren amaieran ebazpena sortuko da, eta gorde edo inprimatu egin daiteke.

ERRENTAK ESLEITZEKO ARAUBIDEAN DAUDEN ERAKUNDEAK (Sozietate Zibilak eta Ondasun Erkidegoak)

**LEHEN ATALA: ARABAKO FORU OGASUNAREKIN NAHITAEZ
EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK**

1. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (IFZ):

Sozietate Zibilek eta Ondasun Erkidegoek beren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar dute Arabako Foru Ogasunari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitorten, berriemate eta idazki guztietan.

IFZrik eduki ezean, eskatu egin behar dute ondasunak edo zerbitzuak ematen, eskuratzen edo inportatzen, dirua kobratzen edo ordaintzen, edo jarduerarako langileak kontratatzen hasi baino lehen.


• Nola eskatu behar da IFZ?

Hitzordua eskatu behar da 945181555 telefonora deituta edo www.alava.net webgunean sartuta. Ogasunak zehazten duen egunean eta orduan Gasteizen dauzkan bulegoetara joan behar da agiri hauekin:

1.- 037 eredu: IFZ eskatzeko 037 alta eredu www.alava.net webgunean dagoen laguntza programaren bidez bete behar da (Ogasuna – Eredu eta inprimakiak – Errolda ereduak) eta inprimatu egin behar da.

2.- Erkide edo bazkide guztien IFZren fotokopiak.

3.- Eraketaren agiri pribatua (jatorrizkoa eta fotokopia) edo eskritura publikoaren fotokopia, erkide edo bazkide guztiek sinatuta; datu hauek agertu behar dira: bazkide edo erkide bakoitzaren izen-abizenak, IFZ eta egoitza; sozietatearen edo erkidegoaren izena; sozietatearen edo erkidegoaren egoitza; sozietatera edo erkidego-



ra ekarritako dirua edo ondasunak; bazkide edo erkide bakoitzaren partaidetza kuota; sozietatearen edo erkidegoaren xedea; data eta erkide edo bazkide guztien sinadura.

4. Ondasun higiezin errentamendua xede duten ondasun erkidegoek ondarean dauzkaten higiezin eskuraketa eskritura publikoen fotokopiak aurkeztu behar dituzte.

5.- Ordezkarria edukiz gero, ordezkari frogatzen duen agiriaren fotokopia. Ordezkarria eraketaren kontratu pribatuan agertzen bada, ordezkariaren frogagiria ez da aurkeztu behar.

Ez da onartzen Erroldan erregistratuta dagoen sozietate izenik. Beraz, hitzordua eskatu aurretik hoberena 945181555 telefonora deitzea da izena erabilgarri dagoen egiaztatzeko.

Ematen diren IFZak BEHIN BETIKO dira.

2. ERROLDA AITORPENA

- **Zer da errolda aitorpena?**

Arabako Foru Ogasunak xede honekin erabiltzen duen tresna: zuzen edukitzea enpresaburu eta profesionalen eta, ez enpresaburu ez profesional ez izan arren, ordaintzen dituzten kopuruak direla eta atxikipenak eta konturako sarrerak aplikatu behar dituzten erakundeen errolda.

- **Zer eredu aurkeztu behar da?**

Erroldako alta, baja edo aldaketaren berri emateko 037 eredu aurkeztu behar da:

037 eredu alta emateko: Sozietate zibila edo ondasun erkidegoa Zergadunen Errolda Bateratuan (ZEB) bere identifikazio datuekin erregistratuta EZ dagoenean aurkeztu behar da, hau da, Araban zergadun berria denean. Aitorpenean IFZren, zerga egoitzaren,

sozietate egoitzaren eta jakinarazpenetarako egoitzaren inguruko datu guztiak eta beste identifikazio datu batzuk eman behar dira, legezko ordezkariak, bazkide edo erkideen partaidetzak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta zehaztu behar dira, eta PFEZen, BEZaren, atxikipenen eta beste zerga batzuen araubideei eta horien inguruko zerga betebeharrei buruzko datuak adierazi behar dira.

037 eredia aldaketarako: Sozietate zibila edo ondasun erkidegoa Zergadunen Errolda Bateratuan (ZEB) erregistratuta badago bere identifikazio datuekin, beraren alta aitopeneko edo haren ondoko aldaketa aitopen bateko daturen bat aldatu nahi denean aurkeztu behar da. Hau da, ondoko hauetan gertatzen diren aldaketen berri emateko erabiltzen da: zerga egoitza, sozietate egoitza, jakinarazpenetarako egoitza, beste identifikazio datu batzuk, legezko ordezkariak, bazkide edo erkideen partaidetzak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren altak, bajak edo aldaketak, eta PFEZen, BEZaren, atxikipenen eta beste zerga batzuen araubideak eta horien inguruko zerga betebeharrak.

037 eredia baja emateko: Erakundea azkentzen denean aurkeztu behar da.

- **Noiz aurkeztu behar da 037 errolda eredia?**

Helburua jarduera ekonomiko baten altaren berri ematea bada: jarduerari ekin, eragiketak egin edo atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu beharra sortu baino lehen.

Helburua jarduera ekonomiko baten bajaren, egoitza aldaketaren edo erakundearen azkentzearen-likidazioaren berri ematea bada: baja, egoitza aldaketa edo azkentzea gertatzen den egunaren biharamunetik hilabete pasatu baino lehen.

- **Zer egin behar da 037 errolda ereduak betetzeko eta Arabako Foru Ogasunari aurkezteko?**

www.alava.net webgunean edo Egoitza elektronikoa dagoen laguntza programa erabili behar da, Arabako Foru Ogasunak ez baitauka onartuta 037 errolda ereduak paperean.

Eredu hau hiru modutan bete eta aurkeztu daiteke:

- a) **Internet bidez (Egoitza elektronikoa):** Ereduak linean bete (Ogasunak dauzkan errolda datuak kargatuta) eta telematikoki bidali (Izapidea: errolda ereduak).

Horretarako ziurtagiri elektronikoa behar da (ikus: “nola erabili ziurtagiri digitalak” - “nola sartu”).

Aurreko ekitaldian edo aribideko urtean 15 erregistro baino gehiagoko urteko laburpena edo aitortpen informatiboa aurkeztu badute, sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek nahitaez aurkeztu behar dute 037 ereduak Internetez, eta BEZaren Hileko Itzulketen Erregistroan alta edo baja emateko eskatzen dutenean ere bai.

Sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek borondatezko ordezkariak eman diezaiokete pertsona bati 037 ereduak Internet bidez aurkezteko (2c ordezkariak maila behar da) eta erakunde laguntzailea den aholkularitza edo gestoria bat ere erabili dezakete (borondatezko ordezkariak eskatu behar da).

- b) **Paperean, PDF fitxategia inprimatuta:** 037 ereduak www.alava.net webgunean dagoen laguntza programaren bidez bete (Ogasuna – Ereduak eta inprimakiak – Errolda ereduak). Inprimakia jendaurreko bulegoetan aurkeztu daiteke (Gasteizen, Laudion eta Guardian daude) edo ohiko postaz bidali daiteke Arabako Foru Ogasunera (Samaniego 14 - 01008 Vitoria-Gasteiz). Ereduak aurkeztu izanaren egiaztagiria lortzeko inprimakia zuzenean aurkeztu behar da Ogasunaren bulegoetan.

- c) **Foru Ogasuneko langileek lagunduta:** Arabako Foru Ogasuneko langileek eredu hau betetzen lagundu dezakete Gasteiz, Audio eta Guardiako bulegoetan, eta zerga betebeharren berri ere eman dezakete. Eredua bulego horietan betetzeko hitzordua eskatu behar da 945181555 telefonora deituta edo www.alava.net webgunean sartuta.

Errolda ereduaren helburua jarduera ekonomiko baten altaren berri ematea bada, ondoko datua adierazten duen OHZren ordainagiria aurkeztu behar da: zergaduna higiezinaren jabea izanez gero, katastroko erreferentzia; bestela, higiezina errentan emanda edo lagata badago, errentatzailearen edo lagatzailearen IFZ eta izena (sozietatearena zein izen-abizenak).

GARRANTZITSUA: Errolda ereduaren bidez jarduera baten altaren, jarduera baten bajaren edo egoitza aldaketaren berri ematen bada, ezinbestekoa da beraren sarrera erregistroko zenbakia jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 840 edo 841 eredu udalari aurkezteko, edo Arabako Foru Aldundiari, baldin eta jardueraren JEZen epigrafea probintziakoa edo estatukoa bada.

BIGARREN ATALA: UDALarekin nahitaez egin beharreko izapideak

Jarduera baten altaren berri emateko aitorpena

Sozietate zibil edo ondasun erkidego batek bere kontura egiten badu enpresa jarduera edo jarduera artistiko bat, nahitaez aurkeztu behar du jarduerari jarduera ekonomikoen gaineko zergaren **alta** emateko aitorpena, zerga horren kargapean egon zein ez.

Epealdia

Jarduera berriari edo aldatutako jarduerari **ekin aurreko 10 egunetan** aurkeztu behar da.



Jarduera baten bajaren berri emateko aitorpena

Enpresa jarduera edo jarduera artistiko bati baja eman nahi dioten sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek nahitaez aurkeztu behar dute jarduerari jarduera ekonomikoen gaineko zergan baja emateko aitorpena.

Epealdia

Hilabete jarduerari uzten zaionetik.

Jardueraren aldaketa baten berri emateko aitorpena

Enpresa jarduera edo jarduera artistiko baten zerbait aldatu nahi duten sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek nahitaez aurkeztu behar dute jarduera ekonomikoen gaineko zergaren aldaketaren aitorpena.

Epealdia

Hilabete aldaketa gertatzen denetik.

Dokumentazioa

- **840 inprimakia:** enpresa jarduera baten altaren, bajaren edo aldaketaren aitorpena (jarduera eta egoitza bakoitzeko).
- **841 inprimakia:** jarduera artistiko baten altaren, bajaren edo aldaketaren aitorpena.
- **842 inprimakia:** jarduerari lotutako lokal bakoitzaren altaren, bajaren edo aldaketaren aitorpena.
- Enpresa jarduera eta jarduera artistikoetan, sozietate egoitza Arabatik kanpo egonez gero, eraketa aktaren kopia behar da alta aitorpenerako.
- Identifikazio agiriaren fotokopia (IFZ).

Arautegia

- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza.
- JEZen Araua eta tarifak: ALHAO, 146. zk., 2001eko abenduaren 21ekoa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren Foru Araua.

Izapideak

Bertaratuta

San Martin auzoko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behe 01008 Vitoria-Gasteiz).

Linean

Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan sartu behar da:

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/si2-04s/auth?locale=eu>

Oharrak

- Urte batean aurkezten diren aldaketek hurrengo ekitaldirako balioko dute.
- Hobariak eta salbuespenak aplikatzeko baldintzak urtarrilaren 1ean bete behar dira.
- Jardueraren izena eta egoitza aldatu nahi izanez gero, jarduerari baja emateko eta berriari alta emateko izapideak egin behar dira.

Izapide hauen inguruko informazioa jasotzeko AHLZAren bulegora joan daiteke (San Martin auzoko eraikineko udal bulegoak) edo 010 telefonora (Gasteiztik kanpo deituz gero: 945 161 100) eta 945 161 616 telefonora (AHLZA) deitu daiteke.



**HIRUGARREN ATALA: GIZARTE SEGURANTZArekin nahitaez
egin beharreko izapideak**

Ikusi: PERTSONA FISIKOAK (AUTONOMOAK), hirugarren atala

PERTSONA JURIDIKOAK, SOZIETATEEN GAINEN ZERGA ORDANTZEN DUTEN NORTASUN JURIDIKORIK GABEKO ERAKUNDEAK (ABEB) ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

**LEHEN ATALA: ARABAKO FORU OGASUNAREKIN NAHITAEZ
EGIN BEHARREKO IZAPIDEAK**

1. IDENTIFIKAZIO FISKALEKO ZENBAKIA (IFZ):

Pertsona juridikoek, sozietateen gaineko zerga ordaintzen duten nortasun juridikorik gabeko erakundeek eta administrazio publikoek beren identifikazio fiskaleko zenbakia jarri behar dute Arabako Foru Ogasunari aurkezten dizkioten autolikidazio, aitopen, berriemate eta idazki guztietan.


IFZrik eduki ezean, eskatu egin behar dute ondasunak edo zerbitzuak ematen, eskuratzen edo inportatzen, dirua kobratzen edo ordaintzen, edo jarduerarako langileak kontratatzen hasi baino lehen.

• Nola eskatu behar da BEHIN-BEHINEKO IFZ?

Hitzordua eskatu behar da 945181555 telefonora deituta edo www.alava.net webgunean sartuta. Ogasunak zehazten duen egunean eta orduan Gasteizen dauzkan bulegoetara joan behar da agiri hauekin:

1.- 036 ereduak: BEHIN-BEHINEKO IFZ eskatzeko 036 alta ereduak bete behar da www.alava.net webgunean dagoen laguntza programaren bidez (Ogasuna – Eredu eta inprimakiak – Errolda ereduak) eta inprimatu egin behar da.

2.- Eraketaren eskritura publikoa: jatorrizkoa eta fotokopia.



3. Errolda aitorpena sinatzen duen erakundearen legezko ordezkariaren IFZren fotokopia eta ordezkaritza horretan jarduteko ahalmena frogatzen duen agiriaren fotokopia (eraketa eskrituran legezko ordezkari modura agertzen ezean).

Sozietate anonimoek, sozietate mugatuak, talde sozietateak, sozietate komanditarioek eta kooperatiba sozietateak notarioen bidez eskatu dezakete behin-behineko IFZ baliabide telematikoen bitartez.

- **Nola eskatu behar da BEHIN BETIKO IFZ?**

Behin-behineko IFZ ematen denetik sei hilabete pasatu baino lehen behin betiko IFZ eskatu behar da Internet bidez (Egoitza elektronikoa). Hain zuzen ere, aldaketaren 036 errolda eredu bete behar da eta erregistroko inskripzioaren zigiluaren orria edo erregistroko inskripzioaren ziurtagiria erantsi behar zaio.

Behin betiko IFZren frogagiria postaz bidaliko da erakundearen jakinarazpenetarako egoitzara.

2. ERROLDA AITORPENA

- **Zer da errolda aitorpena?**

Arabako Foru Ogasunak xede honekin erabiltzen duen tresna: zuzen edukitzea enpresaburu eta profesionalen eta, ez enpresaburu ez profesional ez izan arren, ordaintzen dituzten kopuruak direla eta atxikipenak eta konturako sarrerak aplikatu behar dituzten erakundeen errolda.

- **Zer eredu aurkeztu behar da?**

Erroldako alta, baja edo aldaketaren berri emateko 036 eredu aurkeztu behar da:

036 eredu alta emateko: Erakundea Zergadunen Errolda Bateratuan (ZEB) bere identifikazio datuekin erregistratuta ez dagoenean aurkeztu behar da, hau da, Araban zergadun berria denean. Aitorpenean IFZren, zerga egoitzaren, sozietate egoitzaren eta jakinarazpenetarako

egoitzaren inguruko datu guztiak eta beste identifikazio datu batzuk eman behar dira, legezko ordezkariak, bazkideak eta jarduera ekonomikoen gaineko zergaren alta zehaztu behar dira, eta BEZaren, sozietateen gaineko zergaren, atxikipenen eta beste zerga batzuen araubideei eta horien inguruko zerga betebeharrei buruzko datuak adierazi behar dira.

036 eredia aldaketarako: Erakundea Zergadunen Errolda Bateratuan (ZEB) erregistratuta badago bere identifikazio datuekin, beraren alta aitortpeneko edo haren ondoko aldaketa aitortpen bateko daturen bat aldatu nahi denean aurkeztu behar da. Hau da, ondoko hauetan gertatzen diren aldaketen berri emateko erabiltzen da: zerga egoitza, sozietate egoitza, jakinarazpenetarako egoitza, beste identifikazio datu batzuk, legezko ordezkariak, jarduera ekonomikoen gaineko zergaren altak, bajak edo aldaketak, eta BEZaren, sozietateen gaineko zergaren, atxikipenen eta beste zerga batzuen araubideak eta horien inguruko zerga betebeharrak.

036 eredia baja emateko: Erakundea azkentzen denean aurkeztu behar da.


- **Noiz aurkeztu behar da 036 errolda eredia?**

Helburua jarduera ekonomiko baten altaren berri ematea bada: jarduerari ekin, eragiketak egin edo atxikipenak edo konturako sarrerak aplikatu beharra sortu baino lehen.

Helburua jarduera ekonomiko baten bajaren, egoitza aldaketaren edo erakundearen azkentzearen berri ematea bada: baja, egoitza aldaketa edo azkentzea gertatzen den egunaren biharamunetik hila bete pasatu baino lehen.

- **Zer egin behar da 036 errolda eredia betetzeko eta Arabako Foru Ogasunari aurkezteko?**

Egoitza elektronikoan dagoen laguntza programa erabili behar da, Arabako Foru Ogasunak ez baitauka onartuta 036 errolda eredia paperean.



Hain zuzen ere, eredu hau honela bete eta aurkeztu behar da nahitaez (IFZ eskatzeko ez besteetarako):

Internet bidez (Egoitza elektronikoa): Eredua linean bete (Ogasunak dauzkan errolda datuak kargatuta) eta telematikoki bidali (Izapidea: errolda ereduak).

Horretarako ziurtagiri elektronikoa behar da (ikusi: “nola erabili ziurtagiri digitalak”-“nola sartu”).

Sozietate zibilek eta ondasun erkidegoek borondatezko ordezkari-tza eman diezaiokete pertsona bati 036 eredu Internet bidez aurkezteko (2c ordezkari-tza maila behar da) eta erakunde laguntzailea den aholkulari-tza edo gestoria bat ere erabil dezakete (borondatezko ordezkari-tza eskatu behar da).

GARRANTZITSUA: Errolda ereduaren bidez jarduera baten altaren, jarduera baten bajaren edo egoitza aldaketaren berri ematen bada, ezinbestekoa da beraren sarrera erregistroko zenbakia jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren 840 edo 841 eredu udalari aurkezteko, edo Arabako Foru Aldundiari, baldin eta jardueraren JEZen epigrafea probintziakoa edo estatukoa bada.

BIGARREN ATALA: UDALAREkin nahitaez egin beharreko izapideak

Jarduera baten altaren berri emateko aitorpena

Pertsona juridiko batek bere kontura egiten badu enpresa jarduera jarduera edo jarduera artistiko bat, nahitaez aurkeztu behar du jarduerari JEZen **alta** emateko aitorpena, zerga horren kargapean egon zein ez.

Epealdia

Jarduera berriari edo aldatutako jarduerari **ekin aurreko 10 egunetan** aurkeztu behar da.

Jarduera baten bajaren berri emateko aitorpena

Enpresa jarduera edo jarduera artistiko bati baja eman nahi dioten

pertsona juridikoek nahitaez aurkeztu behar dute jarduerari JEZen baja emateko aitortpena.

Epealdia

Hilabete jarduerari uzten zaionetik.

Jardueraren aldaketa baten berri emateko aitortpena

Enpresa jarduera edo jarduera artistiko baten zerbait aldatu nahi duten pertsona juridikoek nahitaez aurkeztu behar dute JEZen aldaketaren aitortpena.

Epealdia

Hilabete aldaketa gertatzen denetik.

Dokumentazioa

- **840 inprimakia:** enpresa jarduera baten altaren, bajaren edo aldaketaren aitortpena (jarduera eta egoitza bakoitzeko).
- **841 inprimakia:** jarduera artistiko baten altaren, bajaren edo aldaketaren aitortpena.
- **842 inprimakia:** jarduerari lotutako lokal bakoitzaren altaren, bajaren edo aldaketaren aitortpena.
- Enpresa jarduera eta jarduera artistikoetan, sozietate egoitza Arabatik kanpo egonez gero, eraketa eskrituraren kopia behar da alta aitorpenerako.
- Identifikazio agiriaren fotokopia (IFZ).

Arautegia

- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga arautzen duen ordenantza
- JEZen Araua eta tarifak: ALHAO, 146. zk., 2001eko abenduaren 21ekoa.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren Foru Araua.



Izapideak

Bertaratuta

San Martin auzoko udal bulegoetan (Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 behea 01008 Vitoria-Gasteiz).

Linean

Gasteizko Udalaren egoitza elektronikoan sartu behar da:

<https://sedeelectronica.vitoria-gasteiz.org/si2-04s/auth?locale=eu>

Oharrak

- Urte batean aurkezten diren aldaketek hurrengo ekitaldirako balioko dute.
- Hobariak eta salbuespenak aplikatzeko baldintzak urtarrilaren 1ean bete behar dira.
- Jardueraren izena eta egoitza aldatu nahi izanez gero, jarduerari baja emateko eta berriari alta emateko izapideak egin behar dira.

Izapide hauen inguruko informazioa jasotzeko **AHLZAren bulegora** joan daiteke (San Martin auzoko eraikineko udal bulegoak) edo 010 telefonora (Gasteiztik kanpo deituz gero: 945 161 100) eta 945 161 616 telefonora (AHLZA) deitu daiteke.